

Galdera

«Ongi etorri, ikasle etorri berri guztiak:» Zuzena al da? Migrazioaren ondorioz gure hezkuntza-sistemara datozen ikasleez ari gara. Eskerrik asko!


Erantzuna

Bai, zuzena da.

1/ Agurretan, *Ongi etorri* erabiltzen da, horrela, partizipioa mugatu gabe. Halatan, urrundik etorritakoa kalean, etxean, ikastetxean edo beste edozein tokitan hartzean *Ongi etorri!* esaten dugu beti, ez *Ongi etorria!* edo *Ongi etorriak!*.

2/ Ondoren, bokatiboa dugu; beraz, NOR-marka:

ikasle etorri berri guztiak: edo *ikasle etorri berri guztiok:*, plural hurbilarekin.

3/ Euskaltzaindiaren [33. araua](#)  *Ongi etorri!* agurrari buruzkoa da; han azaltzen da nola erabili behar den, eta adibide hau dakar:

[...]

Ungi ethorri, fidel eta adiskide maiteak

Eta ene Semearen ordenantzak gordeak.

Ungi ethorri, goiz eta arrats guri gomendatuak

Eta urrikariz biluz gorriak beztituak.

Ungi ethorri, bihotz simple malezia gabeak

Eta munduko plazeren oinez zapatzaileak

(Ziburuko Etxeberri, *Manual Debozionezkoa*).